

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5491

EBAZPENA, 2020ko azaroaren 3koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez ematen baitira euskal kultura-ondarearen babesaren arloari aplikatutako ikerketa-lanak 2020an eta 2021ean egiteko dirulaguntzak.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko uztailaren 22ko Aginduaren bidez (abuztuaren 24ko EHAA, 180. zk.), euskal kultura-ondarearen babesaren arloari aplikatutako ikerketa-lanak 2020an eta 2021ean egiteko dirulaguntzetarako deialdia arautu zen.

Aginduaren 15. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, Balorazio Batzordea 2020ko urriaren 28an bildu eta eskabideak aztertu ondoren, dirulaguntzak esleitzeko ebazpen-proposamena eman zuen.

Hori dela eta, Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita eta aginduaren 17. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren eskatzaileei bertan agertzen diren dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.— Dirulaguntza ukatzea II. eranskinean agertzen diren pertsonen, bertan azaltzen diren arrazoiak direla eta.

Hirugarrena.— III. eranskinean agertzen diren eskaerak baztertzea, bertan azaltzen diren arrazoiak direla eta.

Laugarrena.— Onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako baldintzen mende geratzen dira, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mende ere.

Bosgarrena.— Dirulaguntzaren xede diren proiektuek 2020ko ekitaldian hasita egon edo hasi behar dute, eta 2021eko urriaren 28a baino lehen amaitu beharko dira. Gauzatzeko epea ezingo da atzeratu edo luzatu data horietatik aurrera.

Seigarrena.— Emandako dirulaguntzen ordainketa honela egingo da, aginduaren 20. artikuluan xedatutakoari jarraituz:

a) Lehenengo zatian, emandako dirulaguntzaren % 50 ordainduko da esleitzen den unean, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Gainerako % 50a, gastua justifikatu ondoren, dirulaguntzaren indarraldia amaitzean eta aurretik eskatutako dokumentazioa aurkeztuta egingo da.

Zazpigarrena.— Diruz lagundutako jarduerak gauzatu direla justifikatzeko eta likidazioa egiteko, aginduaren 21. eta 22. artikuluetan ezarritakoa beteko da. Edozein kasutan, 2021eko urriaren 28a izango da dirulaguntza jaso duten proiektuen egiaztagiria aurkezteko epearen azken eguna (egun hori barne).

Zortzigarrena.— Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Bederatzigarrena.– Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorritz, agindu honetan ezarritako laguntzak minimis-arauen mende daude (araudi hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 107. eta 108. artikulak minimis-laguntzei aplikatzeari buruzkoa da). Ondorioz, enpresa jakin bati emandako laguntza osoa ez da izango 200.000 eurotik gorakoa, hiru ekitaldi fiskalen edozein alditan.

Hamargarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulak ezartzen duenarekin bat etorrita.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 3a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Esp. kod	Eskatzailea	Proiektuaren izenburua	Dirulaguntzaren diru-kopurua	1. ordainketa (2020)	2. ordainketa (2021)
012-KOI-2020	Albaola Asociación Patrimonio Marítimo Vasco	Proyecto de investigación sobre la potencialidad que presentan para la arqueología naval las terrazas agropecuarias de los tramos intermareales de los ríos del País Vasco, con vistas a su protección.	13.000,00	6.500,00	6.500,00
019-KOI-2020	Alberdi Lonbide, Xabier	Proyecto de investigación arqueológica para la documentación y caracterización tecnológica de los hornos de ferrerías de monte vascas anteriores a los siglos plenomedievales.	10.880,00	5.440,00	5.440,00
003-KOI-2020	Apraiz Sahagun, Amaya	Jardines y parques históricos. Una propuesta metodológica para su protección	13.500,00	6.750,00	6.750,00
006-KOI-2020	Aranzadi Zientzi elkarte	La arqueología del mar en el Señorío de Bizkaia. Estudio histórico-arqueológico de los fuertes y baterías costeros	13.500,00	6.750,00	6.750,00
021-KOI-2020	Garate Maidagan, Diego	Kobabes: kobazuloen dinamika eta labar artearen babesa	13.399,51	6.699,76	6.699,75
023-KOI-2020	Garcia Gomez, Ismael	Arqueología de la arquitectura del sistema amurallado de Vitoria-Gasteiz. Estudio de una referencia que sirvió de modelo para el resto del urbanismo medieval vasco.	13.500,00	6.750,00	6.750,00
008-KOI-2020	Herrero Acosta, Xabier	Un abrigo para la lluvia: estudio arqueológico-patrimonial de los refugios antiaéreos en el País Vasco (1936-1937)	13.500,00	6.750,00	6.750,00
016-KOI-2020	Larrinaga Cuadra, Itziar	Patrimonio organístico de la CAPV (2). Descripción, documentación y valoración de los órganos de la primera mitad del siglo XIX orientada a su protección, conservación y puesta en valor	13.500,00	6.750,00	6.750,00
007-KOI-2020	Martinez Matia, Ainara	Astilleros de ribera. Metodología para su protección	13.500,00	6.750,00	6.750,00
005-KOI-2020	Martinez Montecelo, Angel	Naturaleza, cultura y paisaje: protocolo para la identificación y valoración de paisajes patrimoniales en la CAPV	13.500,00	6.750,00	6.750,00
015-KOI-2020	Matés Luque, Jose Manuel	Arqueología subacuática en Bizkaia. Estudios de puertos y ensenadas mediante geofísica	13.500,00	6.750,00	6.750,00
001-KOI-2020	Solaun Bustinza, Jose Luis	Arqueología y espacios construidos. Proyecto de investigación aplicada a los castillos de la Comunidad Autónoma Vasca	12.500,00	6.250,00	6.250,00
		GUZTIRA	157.779,51	78.889,76	78.889,75